

KARTEL TXAPELKETA

XLV. ARABAKO DANTZARI EGUNA – ELTZIEGO

Arabako Dantzarien Biltzarrak XLV. ARABAKO DANTZARI EGUNERAKO kartel lehiaketa deialdia luzatzen du, baldintzak hauek izanik:

1. Xedea eta helburua

- a. Deialdiaren helburua XLV. ARABAKO DANTZARI EGUNA iragartzeko kartelaren diseinua aukeratzea da, kolorez eta teknika librez egina.
- b. Sorkuntza bultzatzea eta artisten parte-hartzea sustatzea du helburu, baita festa honetara ahalik eta gehien hedatzen lagunduko duen diseinua saritzea ere.

2. Emateko prozedura

- a. Saria emateko prozedura jendarteko lehiakortasuna da. Saria emateko, aurkeztutako lanak konparatuko dira, haien arteko erlazioa ezartzeko, izendatutako epaimahaiak egindako balorazioaren arabera.

3. Sariaren zenbatekoa

- a. Saria 270,00€-koa izango da, hartu-agiri moduan.

4. Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak

- a. Adin nagusiko edozein pertsona fisikok parte har dezake, bere nazionalitatea, sexua edo bizilekua edozein dela ere.
- b. Kanpo geratzen dira ekonomia- eta/edo merkataritza- jardueraren bat egiten duten enpresak eta pertsona fisiko eta juridikoak.

5. Hautagaien ezaugarriak

- a. Erabili beharreko teknika librea izango da: argazkia, marrazkia, collage, etab. Ezinbesteko baldintza da Kartel-proposamena argitaratu gabea izatea, hau da, aurretik beste lehiaketa batean ez aurkeztua eta ez saritua izana.
- b. Hautagaiaren identifikazioa ahalbidetzen duen edozein sinadura edo marka digital aurkitzen bada, automatikoki lehiaketatik kanpo geratuko litzateke.
- c. Kartelaren tamaina 420 x 297 mm-koa (DIN A3), bertikalean eta pdf formatuan izango da. CMYK, 300 ppp-an (inprenta) eta RGB, 72 ppp-an (digitala).
Bestalde, kartelaren beheko partean bost zentimetroko tartea utzi behar da dagozkion logoak txertatzeko (antolatzailea, babesleak eta laguntzaileak).
- d. Testu hauek kartelean agertu behar dira:
 - Euskaraz: XLV. ARABAKO DANTZARI EGUNA – Eltziego
 - Euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzea aukeratu daiteke:
2024ko ekainaren 8a / 8 de junio de 2024
12:00 Kalejira herrian zehar / Pasacalles por el pueblo
12:30 Eskoletan **Dantza erakustaldia** / **Exhibición de danzas** en las escuelas
18:00 **SUKAR Kontzertua** plazan / **Concierto de SUKAR** en la plaza

19:30 Urdaiazpiko-bokata **Dastaketa / Degustación** de bocata de jamón
22:00 DJ

Testu hauek artistak nahi duen diseinu eta formatuarekin jar daitezke.

- e. Baldintza hauekin bat ez datozen lanak ez dira lehiaketan onartuko.

6. Hautagaitzen aurkezpena

- a. Lanak posta elektronikoz bidali beharko dira: adb@arabako.com, gaian "ADE kartel lehiaketa" adieraziz, eta mezuan egilearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta NANaren fotokopia erantsiz.
- b. Nahi adina kartel aurkez daitezke.

7. Hautagaitzak aurkezteko epea

- a. Hautagaitzak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 22an hasi eta 2024ko apirilaren 20an bukatu da (biak barne).

8. Bateriaezintasuna beste sari batzuekin

- a. Lehiaketa honetara ezin izango da aurkeztu aurretik beste edozein lehiaketa edo lehiaketatan aurkeztu eta saritutako kartelik.

9. Bozketak

- a. Epaimahaia Arabako Dantzarien Biltzarrean (ADB) federatutako taldeak izango dira.
- b. 2024ko apirilaren 25ean, ADBko talde bakoitzak hiru lan onenak aukeratuko ditu, eta boto gehien dituen kartela izango da irabazlea.
Finalisten artean berdinketarik balego, bigarren bozketa bat egingo litzateke egun baliodun bateko epean. Eta horrela hurrenez hurren irabazle bakarra egon arte.
- c. Maiatzaren 3an jakinaraziko zaio lehiaketa irabazteko proposatutako pertsonari, eta Facebooken eta www.arabako.com webgunean argitaratuko da.
- d. Saria banku-transferentzia bidez emango da.
- e. Azken erabakia ADBrena izango da eta apelaezina izango da.
- f. Kartel irabazlea ADBren jabetzakoa izango da, eta hark beretzat gordeko ditu kartela inprimatzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko eskubideak. Halaber, gainerako lehiakideek eskubideak laga beharko dituzte sare sozialetan argitaratzeko.
- g. Lehiaketara aurkezteak betekizun horiek erabat onartzea berekin dakar.
- h. ADBk askatasuna izango du lehiaketa esleitu gabe uzteko, baldin eta aurkeztutako lanen artean sariaren esleipendun izateko adinako kalitaterik ez balego.